

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua, material birziklatuekin egindako produktuak saltzen dituen denda sortzea da. Gainera pertsonak dendara birziklatzeko zaborra edo objektuak ekarriko balituzte gure dendan deskontu bat lortuko lukete. Salduko genituzkeen produktuak "Tiger" edo "Ale Hop" dendek saltzen dituzten moduko produktu erabilgarriak izango lirateke, pertsonen bizitzak era batean errazteko.

Gainera, gure dendarekin etekin asko lortzekotan, hauen ehuneko bat berotegi efektua murrizteko lan egiten duten enpresa eta unibertsitateei emango genieke.

Gure proiektuak berokuntza globala era batean murrizten laguntzeko helburua izango du. Material birziklatuak erabiltzen baditugu lehengai gutxiago ustiatuko dira hauek lortzeko eta eraldatzeko. Deskontua eskaintzean pizgarri bat sortuko dugu jendeak birziklatzeko eta haien objektu baliogabeak eramateko.

Gainera energia berriztagarriak erabiliko genituzke gure denda argitzeko. Azken finean gure proposamena berokuntza klimatikoa geldotzeko hainbat ekintza egitea baita.

